NIK, IÑAKI GALDOS LANDAK, ELGOIBARKO UDALEKO BEHIN-BEHINEKO IDAZKARI NAIZENEZ, honako hau

D. IÑAKI GALDOS LANDA EL SECRETARIO ACCTAL. DEL ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR.------------

ZIURTATZEN DUT:

CERTIFICO:

Bi mila eta hemeretziko urtarrilaren hogeita hamaikan, Udalbatzarraren Osoko Bilkurak egin zuen bilerako aktaren zirriborroa honako hau dela:

Que el borrador del acta de la sesión celebrada por el Pleno Municipal el día treinta y uno de enero dos mil diecinueve, es del tenor literal siguiente:

Elgoibarren eta bertako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko urtarrilaren hogeita hamaikan, arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Udalbatzarraren Osoko Bilkura lehenengo deialdian bildu da, ohiko bilera egiteko, Ane Beitia Arriola Alkate- lehendakariaren gidaritzapean, eta honako zinegotzi hauek bertan direla: Eusko Alderdi Jeltzalea Udal-taldearen buru den Ane Beitia Arriola andrea, Iosu Arraiz Aramburu jauna, Maialen Gurrutxaga Uranga andrea, Gorka Garaizabal Agirregomezkorta jauna, Bittori Zabala Fernandez andrea, Andrea Arriola Ferrer andrea, Blanca Larrañaga Iriondo andrea, Ioseba Arrizabalaga Mendikute jauna eta Unai Arizmendiarrieta Garcia jauna. Elgoibarko EH BILDU Udal-taldearen izenean, Mireia Isasmendi Aizpiri Andrea, Miren Arrate Arrieta Jauregi andrea, Joseba Osoro Iturbe jauna eta Jon Peli Uriguen Ansola jauna. Euskal Sozialistak Udal-taldearen izenean, Fernando Suarez Varela jauna.

En la Villa de Elgoibar y su Casa Consistorial, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del treinta y uno de enero de dos mil diecinueve, reúnense en primera convocatoria el Ayuntamiento Pleno para celebrar sesión ordinaria, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa-Presidenta Doña Ane Beitia Arriola y a la que asisten los Corporativos: Por el Grupo Municipal del Partido Nacionalista Vasco, del que forma parte la Sra. Alcaldesa: Don Iosu Arraiz Aramburu, Doña Maialen Gurrutxaga Uranga, Don Gorka Garaizabal Agirregomezkorta, Doña Bittori Zabala Fernandez, Doña Andrea Arriola Ferrer, Doña Blanca Larrañaga Iriondo, Don Ioseba Arrizabalaga Mendikute y Don Unai Arizmendiarrieta García. Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar: Doña Mireia Isasmendi Aizpiri, Doña Miren Arrate Arrieta Jáuregui, Don Joseba Osoro Iturbe y Don Jon Peli Uriguen Ansola. Por el Grupo Municipal PSE-EE: Don Fernando Suárez Varela.

Ez dira bertaratu; Elgoibarko EH BILDU Udal-taldearen izenean: Jose Luis Ibarzabal Eguibar jauna eta Iñaki Larrañaga Etxabe jauna. Euskal Sozialistak Udal-taldearen izenean: Nerea Alustiza Alonso andrea.

No asisten; Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar: Don Jose Luis Ibarzabal Eguibar, Don Iñaki Larrañaga Etxabe. Por el Grupo Municipal PSE-EE: Doña Nerea Alustiza Alonso.

Iñaki Galdos Landa Jaunak, behin-behineko idazkariak, bileraren fede eman du.

Da fe del acto el Secretario acctal. Don Iñaki Galdos Landa.

<u>LEHENENGOA.- 2018KO ABENDUAREN 20AN EGINDAKO BILERARI DAGOKION AKTA ONARTZEA.-</u>

<u>PRIMERO.- APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 20 DE DICIEMBRE DE 2018.-</u>

Bozketa egin ondoren, aho batez onartu da bi mila eta hemezortziko abenduaren hogeian bederatzian egin zen bilerari dagokion akta.

Eta hemezortziak eta hogeita hamabost minutu direnean, Udal Talde Sozialistaren Zinegotzia den Fernando Suarez Varela jauna bilerara bertaratu da.

<u>BIGARRENA.- IMH ERAIKINEAN ADDITIVE VILLAGE GUNE BAT SORTZEKO OBRAK INTERES BEREZIKOAK EDO HERRI ONURAKOAK DIRELA AITORTZEA.-</u> Habitat Batzordearen honako irizpen hau, aho batez onartu da eta Erabaki izaera hartu du:

"Aitor Muniozguren Larrartek, IMH MAKINA ERREMINTAREN INSTITUTUAREN izenean eta ordezkaritzan dihardruenak, egin duen eskaera aztertu da. Bertan, Azkue bailara kalea 1 zenbakian dagoen Fundazioaren eraikinean ADDITIVE VILLAGE gunea egokitzeko exekutatzen ari diren obrak interes berezikotzat edo udal onurakoak direla adierazteko eskaera egiten du, hartara, obra horiei dagokion EIOZen % 95eko hobaria ezartzeko.

Proiektu honen bitartez, IMHren eraikin nagusiaren zati bat egokituko da. Solairu hori, halaber, handitu egingo da portxearen zati bat itxita. Era berean, Asmaola eraikineko praktika gelaren zati bat eraberrituko da. Izan ere, baldintza termiko eta higrometriko zehatzak izango dituen gune esklusibo bat behar da, gaur egun ASMAOLA eraikinean instalatuta dagoen ADDITOLA makina erabilita, fabrikazio gehigarrirako teknologia irakasteko. Hala, IMHren eraikin nagusian kokatuta dagoen metrologia gunea egokitzea eta handitzea erabaki da, ondoren, ADDITOLA makina hara eramateko, eta bidenabar, metrologia gunean zeuden makina tridimentsionalak ASMAOLA eraikinera, ADDITOLA makina zegoen gunera

Sometida a votación el acta correspondiente a la sesión celebrada el día veinte de diciembre de dos mil dieciocho, la misma es aprobada por unanimidad.

Siendo las dieciocho horas y treinta y cinco minutos, se incorpora a la sesión el Concejal del Grupo Municipal Socialista D. Fernando Suarez Varela.

<u>SEGUNDO.- DECLARAR DE ESPECIAL INTERÉS O UTILIDAD MUNICIPAL LAS OBRAS PARA LA CREACIÓN DE UN CENTRO ADDITIVE VILLAGE EN EL EDIFICIO DEL IMH.-</u> Es aprobado por unanimidad, elevándolo a la categoría de Acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Hábitat:

"Vista la solicitud realizada por Aitor Muniozguren Larrarte, actuando en nombre y representación de IMH FUNDAZIOA, en el que se solicita la declaración de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales y educativas, las obras de habilitación del espacio ADDITIVE VILLAGE en el edificio de la Fundación, sito en Azkue bailara kalea, 1, que está ejecutando, de cara a la aplicación de una bonificación del 95% del ICIO correspondiente a las mismas.

El proyecto desarrolla la habilitación de parte de la planta baja del edificio principal de IMH, así como la ampliación de la misma cerrando parte del porche. A su vez, se reforma parte del aula práctica del edificio Asmaola. Esto se debe a que se necesita un espacio exclusivo con unas condiciones térmicas e higrométricas específicas para la enseñanza de la tecnología para la fabricación aditiva, utilizando la máquina ADDITOLA que hoy en día está instalada en el edificio ASMAOLA. Se ha optado por habilitar y ampliar la zona de metrología situada en el edificio principal del IMH para poder trasladar allí la máquina ADDITOLA, y trasladar las máquinas tridimensionales que estaban en la zona de metrología al edificio ASMAOLA al espacio

eramateko. Hala, obren aurrekontua 266.283,32 eurokoa izango da.

IMH MAKINA ERREMINTAREN INSTITUTUA irakaskuntzako Fundazio pribatuen erregistroan inskribatuta dagoen fundazio bat da. Fundazioaren gizarte funtsa honakoa da: % 73,35 publikoa, eta % 26,65, pribatua. Gizarte Funtsaren osaera, bereziki, publikoa da. Hori dela eta, Fundazioa kontratazio publikoari dagokion araudiaren pean dago:

Alde publikoa honela osatzen da: Eusko Jaurlaritza (% 51,24), Gipuzkoako Foru Aldundia (% 15,72) eta Elgoibarko Udala (% 6,39).

Beste alde batetik, Makina Erremintaren Institutua helburu koordinatuak eta interes erkidea dituzten bi erakunde juridiko desberdinek bideratutako proiektu juridiko bakarra da. Ikastetxe publikoaren xedea da Hasierako Prestakuntzako Heziketa Zikloak ematea; Fundazioak, berriz, betetzen duen gizarte xedearekin bat datozen gainerako jarduerak eskaintzen ditu, hau da, Lanbide Heziketa. Hala, Hasierako Prestakuntzari dagokion jarduera herri titularitatekoa da, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ardurapean dago.

Hala, 1997ko azaroaren 19an, lankidetza hitzarmen bat sinatu zen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Makina Erremintaren arloko prestakuntza teknikorako fundazioren artean. Hitzarmen horretan zehazten da, besteak beste, Fundazioak eraikitako eraikina, instalazioak eta ekipamenduen doako erabilera mugagabea lagatzen dizkiola Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, honek erabil dezan.

Ildo horretatik, kontuan izan behar da, aitorpen horren xedea dela EIOZi dagokion %95eko hobaria ematea, indarrean dagoen ordenantza fiskalean jasota dagoena; eta

que ocupaba la máquina ADDITOLA. El presupuesto de las obras asciende a 266.283,32€.

IMH MAKINA ERREMINTAREN INSTITUTUA es una fundación inscrita en el Registro de Fundaciones docentes privadas, cuya composición del Fondo Social es el siguiente: 73,35% público y 26,65% privado. Dado que la composición de su Fondo Social es mayoritariamente pública, la Fundación se encuentra sujeta a la normativa de contratación pública.

La parte pública está constituida por el Gobierno Vasco (51,24%), Diputación Foral de Gipuzkoa (15,72%) y Ayuntamiento de Elgoibar (6,39%).

Por otro lado, el Instituto de Máquina-Herramienta es un proyecto único desarrollado por dos entidades jurídicas diferentes con objetivos coordinados y con un interés común. El centro público se centra en la impartición de Ciclos Formativos de Formación Inicial y la Fundación en el resto de actividades afines a su objeto social que atiende el desarrollo de la Formación Profesional. La actividad correspondiente a la Formación Inicial es de titularidad pública y depende del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

El 19 de noviembre de 1997 se suscribió un convenio de colaboración entre el Departamento de Educación, Universidades e Investigación y la fundación para la formación técnica en Máquina-Herramienta. En el mismo se señala, entre otros, que la Fundación cede el uso de forma gratuita e indefinida del inmueble edificado, instalaciones y equipamientos al Departamento de Educación, Universidades e Investigación para su utilización.

Teniendo en cuenta que la aprobación de dicha declaración sería en orden a la aplicación de la bonificación del 95% del ICIO, reflejada en la ordenanza fiscal vigente, y que

hobari hori Osoko Bilkurak onartu behar duela, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergaren arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6.3. artikuluan eta 15/1989 Foru Arauaren 5. artikuluan zerga horri buruz ezartzen denaren arabera.

la misma, en aplicación de la legislación vigente, debe ser aprobada por el Pleno, de conformidad con lo establecido en el artículo 6.3 de la Ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras y en el artículo 5 de la Norma Foral 15/1989 sobre dicho impuesto.

Horretaz gain, kontuan izan behar da obra horiek, ADDITOLA makina erabilita, fabrikazio gehigarriaren teknologia irakasteko gune bat egokitzeko premiari erantzuten diotela. Gune gehigarri (additive) hori ikastetxean eskaintzen diren irakaskuntza guztiek erabiliko dute, baita Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ardurapean dauden Lanbide Heziketako zikloek ere.

Teniendo en cuenta que las citadas obras responden a la necesidad de habilitar un espacio para la enseñanza de la tecnología para la fabricación aditiva, utilizando la máquina ADDITOLA. Dicho espacio additive será utilizado por todas las enseñanzas que se imparten en el centro, incluídos los ciclos de Formación Profesional que dependen del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

Eta halaber, obra horien gizarte eta herri interesa kontuan izan behar dira; izan ere, horien xedea da hezkuntza arloko jarduera bideratzea.

Teniendo en cuenta el interés social y público de las citadas obras, dado que se encuentran claramente orientadas a la actividad educativa.

Horiek horrela, Batzorde honek Udalbatzarraren Osoko Bilkurari proposatzen dio honako **ERABAKIAK** har ditzala:

Esta Comisión propone que por parte del Pleno de la Corporación se adopten los siguientes **ACUERDOS**:

**Lehenengoa**.- Azkue bailara kalea 1 zenbakian kokatuta dagoen IMHren eraikinean ADDITIVE VILLAGE gunea egokitzeko obrak interes berezikoak edo udal onurakoak direla aitortzea, obra horietan gizarte eta heziketa arloko inguruabarrak daudelako

**Primero**.- Declarar las obras de habilitación del espacio ADDITIVE VILLAGE en el edificio del IMH, sito en Azkue bailara kalea, 1, como de especial interés o utilidad municipal, por concurrir circunstancias de carácter social y educativo.

**Bigarrena**.- EIOZi dagokion %95ko hobaria, indarrean dagoen Ordenantza Fiskalean jasota dagoena, onartzea.

**Segundo**.- Aprobar la bonificación del 95% del ICIO expresada en la Ordenanza Fiscal vigente.

**Hirugarrena**.- Akordio hau Kontu-hartzailetza Sailari helaraztea, obra horiei EIOZi dagokion %95ko hobaria ezar diezaien."

**Tercero**.- Remitir el presente acuerdo al Departamento de Intervención, al objeto de aplicar la bonificación del 95% del ICIO a las citadas obras."

<u>HIRUGARRENA.- IMH ERAIKINEKO ALIKATATUA KONPONTZEKO OBRAK, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAK SUSTATUAK, INTERES</u>

<u>TERCERO.- DECLARAR DE ESPECIAL INTERÉS O UTILIDAD MUNICIPAL LAS OBRAS PARA LA REPARACIÓN DEL ALICATADO DEL EDIFICIO DEL IMH, PROMOVIDAS POR EL DEPARTAMENTO</u>

BEREZIKOAK EDO HERRI ONURAKOAK DIRELA AITORTZEA.- --

"Gema Gonzalez de Txabarrik, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILEKO Gipuzkoako Lurralde Ordezkari den aldetik, egin duen eskaera aztertu da. Bertan, Azkue bailara 1 zenbakian kokatuta dagoen Makina Erremintaren Institutuko alikatatua konpontzeko exekutatzen ari diren eraberritze obrak interes berezikotzat edo herri onurakotzat jotzeko eskaera egiten du, obra horiei dagokion EIOZen % 95eko hobaria ezartzeko; izan ere, obra horietan gizarte eta hezkuntza arloko inguruabarrak gertatzen dira.

Obra hauen bidez, nagusiki, alikatatua aldatuko da eraikinaren hainbat gunetan, hala nola, eraikin nagusiaren beheko solairuan eta lehenengo eta bigarren solairuetan egingo da, baita administraritzaren eraikineko beheko solairuan eta sotoan ere. Hala, guztira, 2.790,09 m$^2$ alikatatu aldatuko dira. Lan hauen aurrekontua 160.358,89 eurokoa izango da.

Makina Erremintaren Institutua helburu koordinatuak eta interes erkidea dituzten bi erakunde juridiko desberdinek bideratutako proiektu juridiko bakarra da. Ikastetxe publikoaren xedea da Hasierako Prestakuntzako Heziketa Zikloak ematea; Fundazioak, berriz, betetzen duen gizarte xedearekin bat datozen gainerako jarduerak eskaintzen ditu, hau da, Lanbide Heziketa. Hasierako Prestakuntzari dagokion jarduera herri titularitatekoa da eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ardurapean dago.

Hala, 1997ko azaroaren 19an, lankidetza hitzarmen bat sinatu zen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Makina Erremintaren arloko prestakuntza teknikorako fundazioren artean. Hitzarmen horretan zehazten da, besteak beste, Fundazioak

DE EDUCACIÓN DEL GOBIERNO VASCO.- Es aprobado por unanimidad, elevándolo a la categoría de Acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Hábitat:

"Vista la solicitud realizada por Gema González de Txabarri, en su calidad de Delegada Territorial del DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DEL GOBIERNO VASCO, en el que se solicita la declaración de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales y educativas, las obras de reparación del alicatado del Instituto de Máquina Herramienta sito en Azkue bailara l, que está ejecutando, de cara a la aplicación de una bonificación del 95% del ICIO correspondiente a las mismas.

Dichas obras consisten en la sustitución del alicatado en varias zonas del centro docente, en la planta baja, primera y segunda del edificio principal, y las plantas baja y sótano del edificio de administración, sustituyendo en total 2.790,09 m$^2$ de alicatado. El presupuesto de las mismas asciende a 160.358,89 €

El Instituto de Máquina-Herramienta es un proyecto único desarrollado por dos entidades jurídicas diferentes con objetivos coordinados y con un interés común. El centro público se centra en la impartición de Ciclos Formativos de Formación Inicial y la Fundación en el resto de actividades afines a su objeto social que atiende el desarrollo de la Formación Profesional. La actividad correspondiente a la Formación Inicial es de titularidad pública y depende del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

El 19 de noviembre de 1997 se suscribió un convenio de colaboración entre el Departamento de Educación, Universidades e Investigación y la fundación para la formación técnica en Máquina-Herramienta. En el mismo se señala, entre otros, que la Fundación cede

eraikitako eraikina, instalazioak eta ekipamenduen doako erabilera mugagabea lagatzen diola Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, honek erabil dezan.

el uso de forma gratuita e indefinida del inmueble edificado, instalaciones y equipamientos al Departamento de Educación, Universidades e Investigación para su utilización.

Ildo horretatik, kontuan izan behar da, aitorpen hori EIOZi dagokion %95eko hobaria ematearren eman behar dela. Hobari hori jasota dago indarrean dagoen ordenantza fiskalean, eta hori Osoko Bilkurak onartu behar du, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergaren arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6.3. artikuluan eta 15/1989 Foru Arauaren 5. artikuluan zerga horri buruz ezartzen denaren arabera.

Teniendo en cuenta que la aprobación de dicha declaración sería en orden a la aplicación de la bonificación del 95% del ICIO, reflejada en la ordenanza fiscal vigente, y que la misma, en aplicación de la legislación vigente, debe ser aprobada por el Pleno, de conformidad con lo establecido en el artículo 6.3 de la Ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras y en el artículo 5 de la Norma Foral 15/1989 sobre dicho impuesto.

Eta halaber, obra horien gizarte eta herri interesa kontuan izan behar dira; izan ere, horien xedea da Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak heziketa jarduera emateko erabiltzen dituen hezkuntzarako instalazioak hobetzea.

Teniendo en cuenta el interés social y público de las citadas obras, dado que tienen por objeto mejorar las instalaciones docentes donde se imparte la actividad educativa por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

Horiek horrela, Batzorde honek Udalbatzarraren Osoko Bilkurari proposatzen dio honako **ERABAKIAK** har ditzala:

Esta Comisión propone que por parte del Pleno de la Corporación se adopten los siguientes **ACUERDOS**:

**Lehenengoa**.- Azkue bailara 1 zenbakian kokatuta dagoen IMHren eraikinaren alikatatua eraberritzeko obrak interes berezikotzat edo herri onurakotzat jotzea, gizarte eta heziketa arloko inguruabarrak gertatzen direlako.

**Primero**.- Declarar las obras de reparación del alicatado del Instituto de Máquina Herramienta sito en Azkue bailara, 1, como de especial interés o utilidad municipal, por concurrir circunstancias de carácter social y educativo.

**Bigarrena**.- EIOZi dagokion %95ko hobaria, indarrean dagoen Ordenantza Fiskalean jasota dagoena, onartzea.

**Segundo**.- Aprobar la bonificación del 95% del ICIO expresada en la Ordenanza Fiscal vigente.

**Hirugarrena.-** Akordio hau Kontu-hartzailetza Sailari helaraztea, obra horiei EIOZi dagokion %95ko hobaria ezar diezaien.

**Tercero.-** Remitir el presente acuerdo al Departamento de Intervención, al objeto de aplicar la bonificación del 95% del ICIO a las citadas obras."

<u>LAUGARRENA.- UDALEKO 2018 EKITALDIKO AURREKONTUA ALDATZEKO, 12/2018, ZENBAKIA DUEN ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA.-</u>

<u>CUARTO.- DAR CUENTA DEL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITO Nº 12/2018 DEL PRESUPUESTO</u>

DEL EJERCICIO 2018 DEL AYUNTAMIENTO.-

Udalbatzarraren Osoko Bilkurak Alkatetzak eman duen honako Ebazpen honen berri izan du:

El Pleno de la Corporación se da por enterado de la siguiente Resolución de Alcaldía:

"ALKATEAREN EBAZPENA, 1119 ZENBAKIDUNA

"RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA Nº 1119

KREDITU ALDAKETA ONARTZEA

APROBACIÓN DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS

Kreditu transferentziaren bidezko kreditu aldaketaren 2018-KKRT-000005-00 zenbakidun espedientearen onarpena.

Aprobación del expediente número 2018-KKRT-000005-00 de modificación de créditos mediante transferencia de créditos

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Se da cuenta del expediente de modificación de créditos del presupuesto de este Ayuntamiento, en la modalidad de transferencia de créditos.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Se procede a dar lectura del informe realizado por la Interventora, donde se expone que el expediente es acorde con la legislación que le es de aplicación, concretamente, con lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre relativa a los Presupuestos de la Entidades Locales.

Horiek horrela, arestian adierazitakoa kontuan izanik, eta Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 1985/7 Legearen 21.1 f.) artikuluak xedatutakoari jarraiki, legez ematen zaizkidan eskumenez baliatuta, honen bitartez, ondokoa

A la vista de lo que antecede, y en uso de las atribuciones que me son legalmente conferidas de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 21.1 f.) de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local

EBATZI DUT:

RESUELVO:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentziaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos de este Ayuntamiento, en la modalidad de transferencia de créditos con el mismo detalle que figura en la propuesta por partidas, de acuerdo con el siguiente resumen por capítulos.

KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

PROPUESTA DE TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak) — Partidas de gastos que transfieren los créditos (bajas)

| Partida | Izena / Denominación | Hasierako kreditua Crédito inicial | Murrizketa Reducción | Amaierako kreditua Crédito final |
|---|---|---|---|---|
| 1 0502.226.931.00.99 2018 | BESTE HAINBAT GASTU / OTRA SERIE DE GASTOS | 1.000 | 900 | 100 |
| | | | | |
| | GUZTIRA / TOTAL | 1.000 | 900 | 100 |

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak) — Partidas a las que se incorporan los créditos

| Partida (*) | Izena | Hasierako kreditua Crédito inicial | Gehikuntza Incremento | Amaierako kreditua Crédito final |
|---|---|---|---|---|
| 1 0501.933.011.00.01 2018 | EPE LUZERAKO MAILEGUEN AMORTIZAZIOA / AMORTIZACIÓN DE PRÉSTAMOS A LARGO PLAZO | 28.000 | 900 | 28900 |
| | | | | |
| | **GUZTIRA / TOTAL** | **28.000** | **900** | **28.900** |

Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira.

Se podrán generar nuevas partidas presupuestarias.

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako aldaketa Fondoen Kontuhartzailetza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea, gastuetan zein sarreretan.

Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo, sin la realización de trámites ulteriores, procede que la modificación aprobada sea reflejada por los Servicios de Intervención de Fondos con carácter permanente, tanto en el apartado de gastos, como en el de ingresos.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran akordio honen berri ematea."

Tercero.- Dar cuenta de este acuerdo al Pleno de la Corporación en la siguiente sesión que celebre."

## BOSGARRENA.- UDALEKO 2018 EKITALDIKO AURREKONTUA ALDATZEKO, 13/2018, ZENBAKIA DUEN ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA.-

## QUINTO.- DAR CUENTA DEL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITO Nº 13/2018 DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2018 DEL AYUNTAMIENTO.-

Udalbatzarraren Osoko Bilkurak Alkatetzak eman duen honako Ebazpen honen berri izan du:

El Pleno de la Corporación se da por enterado de la siguiente Resolución de Alcaldía:

"ALKATEAREN EBAZPENA, 1125 ZENBAKIDUNA

"RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA Nº 1125

## KREDITU ALDAKETA ONARTZEA

Kreditu Gehigarriaren bidezko kreditu aldaketaren 2018-KKRA-000006-00 zenbakidun espedientearen onarpena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu Gehigarriaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Horiek horrela, arestian adierazitakoa kontuan izanik, eta Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 1985/7 Legearen 21.1 f.) artikuluak xedatutakoari jarraiki, legez ematen zaizkidan eskumenez baliatuta, honen bitartez, ondokoa

### EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu Gehigarriaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

## APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS

Aprobación del expediente número 2018-KKRA-000006-00 de modificación de créditos mediante créditos adicionales.

Se da cuenta del expediente de modificación de créditos del presupuesto de este Ayuntamiento, en la modalidad de créditos Adicionales.

Se procede a dar lectura del informe realizado por la Interventora, donde se expone que el mencionado expediente es acorde con la legislación que le es de aplicación, concretamente, con el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003 relativa a los Presupuestos de las Entidades Locales.

A la vista de lo que antecede, en uso de las atribuciones que me son legalmente conferidas de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 21.1.f. ) de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local

### RESUELVO:

Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos del presupuesto de este Ayuntamiento, en la modalidad de créditos Adicionales, con el detalle que figura en la propuesta por partidas, y de acuerdo con el siguiente resumen por capítulos:

| Gastuen partida / Partidas de gastos | Azalpena / Concepto | Kredituak / Créditos | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Egungoak Actuales | Aldaketak Modificaciones | Behin betikoak Definitivos |
| 1 0201.212.320.00.01 2018 | MAKINERIA, INSTAL. & TRESNERIAREN KONPONKETA / Maquinaria Instalac. &Arreglo de Utillaje | 6.000,00 | 5.000,00 | 11.000,00 |
| 1 0202.226.334.03.06.01 2018 | KULTUR IHARDUERAK: HERRIKO JAIAK / Actividades Culturales. Fiestas Locales | 277.000,00 | 20.000,00 | 297.000,00 |

| Kod. / Cód. | Partida | Azalpena / Concepto | Zenbatekoa / Importe |
|---|---|---|---|
| a | 2 0100.870.000.00.01 2018 | GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINTZAKO GERAKINA | 25.000 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | REMANENTE DE TESORERÍA PARA GASTOS GENERALES | |
| | | | |
| | | FINANTZAKETA GUZTIRA / TOTAL FINANCIACIÓN | 25.000,00 |

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako aldaketa Fondoen Kontuhartzailetza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea, gastuetan zein sarreretan.

Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo sin la realización de trámites ulteriores, procede que la modificación aprobada sea reflejada por los Servicios de Intervención de Fondos con carácter inmediato, tanto en el apartado de gastos, como en el de ingresos.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran akordio honen berri ematea."

Tercero.- Dar cuenta de este acuerdo al Pleno Municipal, en la próxima sesión que celebre."

SEIGARRENA.- ESKARI-GALDERAK.-

SEXTO.- RUEGOS Y PREGUNTAS.-

Ez da ez eskaerarik, ez galderarik egon.

No se presentan.

Eta iluntzeko seiak eta berrogeita hamar minutu direnean, Lehendakari andreak bilkura bukatutzat eman du, eta nik, Idazkari naizenez, hau guztiau egiaztatu dut.

Y siendo las dieciocho horas y cincuenta minutos, la Sra. Alcaldesa-Presidenta levanta la sesión, extendiéndose la presente acta que yo en calidad de Secretario certifico.

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut Alkate andrearen oniritziarekin, Elgoibarren bi mila eta hemeretziko otsailaren batean.---------------------------------------------

Y para que así conste, expido la presente certificación con el Vº.Bº. de la Sra. Alcaldesa, en Elgoibar a uno de febrero de dos mil diecinueve.--------------------------------------

O.E.-Vº.Bº.
ALKATEA, - LA ALCALDESA